



Euskadiko Gazteriaren
Kontseilua
Consejo de la Juventud
de Euskadi

Bakerako

Heziketari Buruzko
Euskal Liburua



Argitaratzailea:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi
[Http:// www.egk.org](http://www.egk.org)

Bilbao: Autonomía 44 C. P. 48010
Tel. 94 443 61 43 Fax: 94 444 81 71
bilbao@egk.org

Donostia: Andía 11 Principal C.P. 20004
Tel. 943 42 97 67 Fax.: 943 42 98 37
donosti@egk.org

Arduraduna:

Fermín Sánchez López
EGKren Kontzientzi Eragozpen eta
Intsumisioari buruzko Aditua

Lantaldea:

Kontzientzi Eragozpen, Intsumisio eta Bakerako
Heziketarako Komisia
EDE Fundazioa (Ahimsa Taldea)
Urtxintxa Eskola

1997 urtea

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Sarrera	13
1. Termino argituz	16
1.1. Hezkuntza	17
1.2. Bakea	18
1.3. Gatazka	18
1.4. Oldarkortasuna	19
1.5. Bortizkeria	21
1.5. Bortizkeria-eza	21
2. Bortizkeriaren errealitatea aztertzea	23
2.1. Metodologia	24
2.2. Kontuan izateko proposatzen ditugun irizpideak	25
2.2.1. Pertsona-taldea	25
2.2.2. Egoera	26
2.2.3. Bortizkeria motak	27
3. Bakerako hezkuntzaren helburuak	29
3.1. Prozesu soziala	29
3.1.1. Zer-nolako gizartea nahi dugun	29
3.1.2. Pertsona ezbertitzaren erdurako proposamena	30
3.1.3. Gizarte egintza: bakerako heziketa	31
3.1.4. Bakerako hezitzaileen konpromisoa	32
4. Garapena	33
4.1. Nola gauzatu hori guztia?	33
4.2. Taldearen prozesua oinarri gisa (bost urrtsak)	35
4.3. Ebaluazioa	38
5. Baliabideak	39
5.1. Lankidetzan oinarrituriko joko ezbertitza	40
5.2. Beste teknika batzuk	42
6. Baliabide eta materialen gida	43

Aurkezpena

Proiektu hau interesgarri bezain beharrezkoa denez, hurrez aurrera joan gara. Esku artean duzunaren sarrera izan daiteke. Moldiztatu ostean hain polita eta dotore gelditzen dena ez da lau pertsonaren eta bi hilabeteko lana soilik. Aitzitik, pertsona askoren ahaleginen eta epe luzeko fruitua da.

Bakerako heziketaren Euskal Liburua bultzatzeko ideia sortu zenean, bi ikuspuntutik egin genuen. Alde batetik, bakerako heziketaren sektore desberdinetan lanean ari ziren taldeak proiektu erkide, hitzartu eta zabalk batean inplikatu nahi genituen. Bestalde, proiektu hori ezinbestean sortu behar zen bizi dugun gizartea, gure herria, Euskal Herria kontuan hartuta.

Proiektua gorpuztuz joan zen sektore askotako taldeekin (sindikatuak, hezkuntza arlokoak, aisialdikoak, gizarte lanekoak, antimilitaristak, bakezaleak, gatazketan bitartekaritza lanekoak eta abar) bilera trinkoak egin ondoren. Arian-arian mintegi eta eztabaida taldeak eratu dira, liburua biribiltzeko.

Lortutakoaz pozik egoteaz gain, salaketa eta hausnarketa plazaratu nahi dugu: denon ahotan dagoen gaia izan arren, bertan sakontzeko asmoa daukaten talde gutxi daude. Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon.

Nolanahi ere, positiboa dena har dezagun kontuan. Izugarrizko lana egin dute talde eta kolektiboak, martxan dauden mintegietan. Aisialdiko mintegia (lan taldea, nahi izanez gero) bilera zabal-zabalekin hasi zen, hau da, talde eta kolektibo guztiak gonbidatuta. Azkenean, lan eta ahalegin franko egin arren, aisialdiko hezitzaileak trebatzeko honako eskolek eratu ziren. EDE Fundaziko Ahimsa Lan Taldea, Urtxintxa Eskola eta Kontzientzi Eragozpen, Intsumisio eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Bakerako Heziketaren Komisia.

Bilera eta dinamika trinkoak izan dira, grina eta konpromisoa nahi beste. Metodologia, hasiera batetik, partehartze eta adostasunean oinarritu da eta hori agerikoa da, ondorioak izugarriak baitira.

Esku artean duzun honek, azken finean, erabili, eztabaidatu, hausnartu eta aberasteko materiala izan behar du. Ezin da bukatutzat jo, guztiz kontrakoa; gure ustetan, ideiak eman ditugu zuk edo zure taldeak iruzkinak egin, erabili, irakurtzeko...

Ez dugu aurkezpen hau amaitu nahi iruzkinak egin, kritikatu, aztertu eta ekarpenak egiteko animatu barik. Materialak hau zurea izan dadin gura dugu.

*EGKren Kontzientzi Eragozpen eta Intsumisioari buruzko Aditua
Kontzientzi Eragozpen, Intsumisio eta Bakerako Heziketarako Komisia*

EDE



HEZITZAILEEN ELIZBARRUTIKO ESKOLAK 1976. urtearen inguruan zabaldu zituen ateak. 1991ko irailean, Bilboko Gotzainak fundazio kanoniko autonomo izendatu zuen eta berezko pertsonalitate juridikoa eman zion.

Irabazasmorik gabeko erakundea da EDE FUNDAZIOA; izan ere, fundazio horren helburua Bizkaiko gizarte eta erkidegoaren garapen laguntzea da, gizarte agente, hezitzaile, begirale eta laguntzaileen formakuntzaren bidez. Era berean, aholkularitza, bitartekaritza eta informazio zerbitzu aurreratuak garatzen ditu agente guztiontzat eta horien langai diren kolektibo eta erakundeentzat.

EDE FUNDAZIOAK egindako lanaren azkenengo onuradunak gure inguruko pertsona guztiak dira eta kolektibo behartsuenak era bereziak, besteak beste: haurrak, gazteak, zaharrak, emakumeak, etorkinak, toxikomanoak, presoak.

Urte hauetan, hamar mila pertsonak inguru bere prestakuntza jardueretatik atera dute onura.

AHIMSA LAN TALDEA EDE FUNDAZIOAN bertan lan egiten duten bolondres taldeetarik bat da, 10 urtetik hona. Talde horren hezitzaileek izaera desberdina dute, bai izakera pertsonalaren aldetik eta bai hezkuntza ikuspegitik. Hezitzaileok, gogoetarik egiteaz gain, bakerako heziketari buruzko ikastaroak

eman dituzte aisialdiko hezitzaileentzat, animatzaileentzat, begiraleentzat, irakasleentzat eta abarrentzat.

- Aisialdiko Eskola
- Animazio soziokulturaleko eskola
- Gizarte boluntarioen eskola
- Adierazpen eskola
- Etenik gabeko hezkuntza eta lanbide birziklaiarako eskola
- Aholkularitza eta ikasketa zerbitzua
- Dokumentazio eta baliabide zerbitzua

EDE FUNDAZIOA

Simón Bolívar, 8-B 48010 BILBO

Tel.: 470.06.40

Faxa: 470.01.92

E-mail: fundEDE@lander.es



urtxintxa

Aisialdian hezitzeko eskola da URTXINTXA, eta 1986an sortu zen. Eskola horren xedea ondokoa zen: euren betebeharrei aurre egiteko hezkuntza biderik aurkitzen ez zuten talde eta erakundeak aurrera ateratzea.

URTXXINTXA ESKOLAREN jarduerarik nagusia Heziketa Ezformalean trebakuntza sustatu eta garatzea da; trebakuntza hori ulertu behar da gurariazko heziketa sistematiko eta metodiko legez. Eskola horren asmoa gizarte agenteak gaitzea da gizartean bertan eragina izan dezaten; hortaz, asmo hori hobetzen duten hezkuntza egitasmoak bereganatu behar ditu URTXXINTXAK.

Heziketa Eskola honen zereginen artean, aisialdiko taldeak, neska-mutiko eta gazte elkarteak eta, oro har, erakundeak osatzen dituzten hezitzaileen hezkuntza eta espezializazio prozesua planifikatu dugu; beraz, Eskola handitu den heinean, hezkuntza aukera handitu da eta ondorioz, profesional eskariari berari aurre egin ahal izan zaio.

Hezkuntza Egitasmoa ondorengo da:

- Aisialdiko begiralea
- Aisialdiko zuzendaria
- Boluntarioen animatzaile soziokulturala
- Ingurugiroari buruzko heziketa
- Gazte dinamizatzaileria
- Zaharren animatzailea
- Drogomenpekotasunen aurrearretarako bitartekaria
- Abentura begiralea
- Sexu hezitzailea

Beste zerbitzu batzuk

ETENGABEKO HEZKUNTZA

- Hilabetean behin Eskolak monografikoak eskaintzen ditu, ikasleentzako gai interesgarri batzuk sakontzeko.

HEZKUNTZA ITUNDUA

- Modalitate horren arabera, Eskolak hezkuntza talde, elkarte eta abarrekin ituntzen du euren heziketa hobetzeko gaiak jorratzea.

AHOLKULARITZA

- Informazio eta aholkularitza zerbitzua, talde eta elkarteentzat.

AISIAKO BIBLIOTEKA

- Bibliografi baliabideak, talde eta ikasleek kontsultak egin eta maileguan hartzeko.


Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Zabalbide 26 - Behea

48006 BILBO

Tlnoa / Faxe: 4 32 04 45

E-Mail: urtxin_biz@eusnet.org



El juego de la guerra. 1972

Sarrera

Begien aurrean duzun materialaren helburua intuizio sortaren transkripzioa izatea baino ez da; intuizio horiek orrialde hauek landu ditugun pertsonok garrantzitsutzat jotako bake eta ezbortizkeriari buruzko intuizioak dira.

Gure ustetan, eta idealistegi agertzea ez zaigu inporta, ezbortizkeria eta bakeak badute zeresanik ondokoetan: hezkuntza eginkizunetan, gure lan talde eta ekipoetan, bai heziketa formal edo arautua deiturikoan eta bai material honen esparrua izan nahi den heinean, hau da, aisialdiko heziketan edo heziketa ezformalean.

Betidanik eta beharbada ezaugarri bereziak direla eta, hezkuntzaren esparru ezformala bake eta ezbortizkeriarako heziketari buruzko ekimen, ideia eta ikerketa ugariaren sorgunea izan da. Geroago, halaber, ekimen, ideia eta ikerketa horiek hezkuntza formalaren barneko beste errealitate batzuk sorrarazi dituzte. Hala eta guztiz ere, aintzatetsi behar dugu nahiak eta egungo egoera parekatu direla eta bake eta ezbortizkeriaren inguruko hezkuntza hausnarketa horiek esparru formalera eramateko saiakerak fruitu interesgarriak ematen ari direla. Ezbairik gabe, aurrekoaren froga hauxe dugu: bakerako eta giza eskubideetarako heziketa gaurko hezkuntza eraldaketaren zehar lerroa bezala sartu egin da.

Lorpen horiek, gure iritziz, ezin digute pentsarazi lana burututa dagoenik. Are gehiago, gure aburuz, aurrera jo behar dugu hezkuntzari, bai formalari eta bai ez-formalari, bake eta ezbertizkeriaren baloreak itsasten; gisa berean, gure irudikoz, urrats asko egin behar dira eta askorik dago esperimintatu eta ikertzeko. Hezitzaileak bere hezigaiei "zerbait gehiago" eskaini nahi badie, lan ildo horretatik mauka paregabea aurki dezake, askori gustatzen ez zaigun gizarte hau pixkanaka-pixkanaka aldatzeko. Hau da gure apustua.

Esangura horretan, material hauen xedea gaur eta hemen bake eta ezbertizkeriarako heitzeko eduki, helburu eta lan tresnak zuei hurbiltzea baino ez da.

Gure gogoetak gaikako bost arlotan egituratzen dira; izatez, gure iritziz, bostok mundutxo horretara sartzeko lan gako oinarrikoak biltzen dituzte eta, hala denean, balio dezakete kolektibo bakoitzak, bere inguruko errealitate zehatza kontuan harturik, sakon dezan.

Lehendabizi, bakerako heziketari buruz hitz egitean gehien erabiltzen diren terminoak argitzeko proposamena aurkeztzen dugu. Gure ustez, gai hauek oso anbiguoak, edo behintzat pertsona interpretazioaren arabera dira, beraz, oso zaila da aurrera jotzea, lehenago mugatu edo argitzen ez badugu kontzeptu bakoitza. Eskaintzen dizuegun proposamena, aldi berean, ardatza izango da eta ardatz horren inguruan datza lanaren gainerakoa.

Jarraian, ezbertizkeriarako heziketari buruzko lan ardatzaren beste kapitulu bat aurkituko duzue: gure inguruko errealitatearen azterketa. Errealitate hori, gaur egun, bortitza da. Kontuan izateko lan ildoak eskaintzen saiatu gara, ezbertizkeriatik bakerako heziketa landu nahi duen hezitzaile talde orok aintzat har ditzan.

Hirugarren multzo gisa eta hezkuntza prozesuaren oinarri legez, helburuak, xedeak, ditugu. Txosten honetan azaldutako zerrenda ez da zehatza, ezta itxia ere, lan egiteko proposamen bat baizik. Hau da, gure ustez, helburu jakin horien oinarri izan behar diren zutabeak agertzen dira txosten honetan; izan ere, talde bakoitzak formulatu, sailkatu eta iragankor bihurtu behar ditu helburuok. Era berean, esan behar dizuegu bakerako heziketaren bidean jorratu beharreko asko jakinekoea zaizuela; beraz, txosten honen bitartez gogoratu nahi dizkizuegu ohikeriak berak ahaztarazten dituen kontuak, beharbada, garrantzitsutzat jotzen ez direlako.

Lantxo honen laugarren kapitulan azaltzen da aurreko guztiari ekiteko modua. Hezkuntzaren ikuspuntu sozioafektibotik, talde prozesua eta ebaluazioa dira gure gogoetaren ardatza. Prozesu horrek eta ebaluazioak, bestetik, berebiziko garrantzia dute ezbertizkeriaren arabera heitzeko.

Lehen aipatutakoa lortzeko bideak, jokuak batez ere, aztertzea dugu azkenik. Ezingo litzateke izan beste modu batera, ezin baitugu ulertu ezbertizkeriaren arabera hezkuntza bezalako hezkuntza integral, bizizale eta errotikako

eraldatzailea, baldin eta ahaztu egiten badugu jolastearen garrantzia; izatez, jokua errealitatera hurbiltzeko lehenengo urrats ludikoa da.

Argitalpen hau osatzeko bibliografia zabala eta erabilkorra -halaxe gura genuen- dugu; gisa bertsuan, bibliografia horretan gaiko bideo eta filmeak ditugu zerrendaturik. Gure aburuz dokumentazioak eta beste esperientzia edo ideia batzuekin kontrastatzeak gure lana aberastu baino ez dute egiten. Beraz, ekin diezaigun lanari!

-¿Por qué me matas?
¿Por qué? ¿No está ya
en la otra orilla? Si
estuviera en esta orilla,
yo sería un asesino, y
matarlo una injusticia,
pero desde que está en
la otra orilla, soy un
héroe, y su muerte
una cosa justa.

1. Terminoak argituz

Pertsona taldea hasten denean lanean edozein material eztabaidatzeko xedez, erabiltzen diren hitzen inguruko eztabaidak sortzen dira beti. Ez da batere ohikoa taldearen pertsona guztiek eztabaidaren hitz garrantzitsuenak modu berean interpretatzea, eta guztiz zailagoa da halakoa gertatzea prozesua sormen prozesua bada, hezkuntzan gertatzen den bezalaxe. Halaber, adierazi gabeko adostasunik bada edo eztabaidarik ez sortzekotan, diseinatutakoa praktikan jartzean alde aurretik prestatutakoa hutsal dezaketen interpretazioak agertuko dira.

Hori dela eta, eta eskarmentuak halaxe gomendatzen digu, terminoak argitzea alde aurretiko, hasierako eta ezinbesteko pausotzat jotzen dugu eta talde guztiek egin behar dute pauso hori. Horrez gain, baldin eta kontuan hartzen badugu bakerako heziketan erabiltzen diren kontzeptuak interpretazio subjektiboaren arabera direla neurri handi batean, pertsona esperientzia aintzat hartzeko dela oso eta, zergatik ez esan, errazegi manipulatzeko direla, beharrezkoagoa egiten zaigu terminoak argitzea deitu dugun eztabaida eta gogoeta prozesu hori.

Ondoko lerroetan, gure hausnarketaren emaitza eskaintzen dizuegu. Ondoren datozenak ez omen dira ideia itxiak, iradokitzaileak baino. Lerrook ez dira

erabateko egia eztabaidaezinak, hala ere, argitalpenaren garapena jorratzeko bidea argitzeko ildoak izan nahi dira. Bestetik, gure irudirako, gogoeta zehaztu dezaketen sei terminoak aukeratu ditugu. Alta bada, gure iritziz, burura etortzen zaizkigun beste termino asko izan daitezke aurkeztu dizkizuegunen artean.

1.1 Hezkuntza

Argi eta garbi, hiztegiak hezkuntzaren inguruan dakarren definizioa ez zaigu balio:

“Hezi, prestatu eta gaitzeko ekintza eta prozesua. Hezi: pertsonaren edozein gaitasun garatu eta laguntzea”.

Hezkuntzaz aritzean, pertsonaren “BAITATIK ATERATZEN UTZI” kontzeptuaz aritzen ari gara. Ez gara hain manikeoak, ez dugu sinetsi pertsona onak direnik jaotzetik bertatik; abiapuntua ez da pertsonaren izaera positibo edo negatiboa ukatu ala baieztatzea, baina azpimarratzen badugu “ahalmen” kontzeptuaren garrantzia, “gaitasun” kontzeptuaren gainetik. Eta horretan ados gaude gaur egun pertsonaren jatorrizko ahalmena onartzen duten antropologo, biologo, psikologo, humanista eta beste zientzilari batzuekin. Era berean, zientzilari horiek berebiziko garrantzia ematen diote inguruari, giza pertsonalitatea egituratu eta hazteko; aurreko horri pertsona gizarteratzeko prozesua deitzen zaio. Hori horrela dela, gure aukeraren ikuspuntutik -aukera zientifikoa da hein handi batean-, pertsona bera ez da gizaki isolatua, baizik eta gainontzekoentzat eta gainontzekoekin aritzen dena. Hortaz, pertsona berez gizarte gizakia da.

Gure hezkuntza aukera oso, aktibo eta askatzaila da; hots, pertsonari bere garapen integrala osatzeko behar dituen baliabideak eskaintzen zaizkio. Modu horretara, pertsonak berak erabaki eta eraikitzen du ondoen uste duena, beraz, gizarteen murgiltzea eta egoera desberdinak era positiboan bizitzea ahalbidetzen da. Horren harira eta hezkuntza neutrorik ez dagoela onarturik, ondratu izateko, esan behar dugu hautatu izan dugun hezkuntzak ondorengo ezaugarriak dituela: manipulatzaila, intentzionala, pertsona ez bortitzak lortu nahi dituen, hau da, pertsona horiek ez dituzte gauzak onartu ala errefusatzeko, onartu ala errefusatzeko hutsagatik, baizik eta azaldutakoa baloratu eta aztertu ondoren.

Hezkuntza manipulatzailaren kontzeptua kontzeptu polemikoa da berez; hots, hezkuntza erakundeak zehatz-mehatz ez diren erakunde askotan, kontzeptu hori bistako ezaugarri negatiboen ondorioa da. Balore batzuen helburua pertsona kritikoak hezitzea da eta gure ustetan positibo diren baloreotan oinarrituriko hezkuntzaren aldeko apustuak nahi dugun pertsona eredura hurbiltzen gaitu. Ereduri hori, eduki handia izateaz gain, honakoa da: pertsona managaitza.

1.2. Bakea

Kontzeptu horren inguruan arrisku ugari sortu ohi dira: anbigutasuna eta konnotazioak. Hezkuntza definitzean, gauza desberdin asko uler daitezkeen legez, bakea definitzean arazoa handitu eta ugaritzen da.

Hasteko, ez dugu termino hori definitu nahi nabardura negatiboez (bakea ez da gatazkarik eza, bakea ez da gerrarik eza, Bakea termino positiboetan definitzeak pertsonarteko harremanetara, gizarte justiziara ° eramaten gaitu.

Bakea eta justizia ezin dira banandu, txanpon bereko bi aldeak eta bien artean tentsio etengabea dago. Gure iritziz kasu honetan dugu justizia: berdintasunezko giza harreman eta elkarreraginak daudenean maila efektibo, ekonomiko, sexual, sozial, kultural, erlijioso, etniko, arrazazko eta hezkuntzazkoan, hau da, maila guztietan, harreman horiek autorrealizazioa lortzeko elkarrekiko begirunean eta gizarte lankidetzan oinarritzen direnean, hain zuzen. Kontzeptu hori mugatua ez ezik, gero eta zabalago bihurtzen da, berdintzaletasunean oinarriturik.

Kontzeptu bion arteko, bake eta justiziaren arteko, elkarren ondoko lokarriak ezartzen dira: bakea lor daiteke? justizia eta lankidetzat lortu behar dira bakea lortzeko? Era berean, garrantzitsua da maila jakin batzuetatik berdintasun egoera ziurtatzea: justizia soziala, eskubide demokratikoengatikoa begirunea, gizarte lankidetzat, erkidego lankidetzat,

Eta bake-justizia tentsio erlazioa da, hau da, ez da gizakiak bere baitarekin, gainontzekoekin (estatuarekin, beste gizarte batzuekin, beste herri batzuekin eta abarrekin) eta naturarekin duen erlazio etereo.

1.3. Gatazka

Gatazka bizitzari dagokiona da, gatazka erlazioa bera da. Baldin eta beste batzuekin egiten diren izakiak bagara, erlazioa dago eta erlazioa gatazkatsua da berez, bertan izaki desberdinek parte hartzen duten heinean. Hortaz, gatazka desberdintasunaren baitakoa da, baita beharrezko giza erlazioarena ere; gatazka pertsonarteko harremanen ondorioa da. Kontzeptuak berak baieztatu eta ezeztatzen du:

Abiapuntu horrek gatazkari itsasten zaion gizarte konnotazio negatiboa hausten du.

Gatazkan, giza harremanetan, hezitzearen kontzeptuaren arabera, hezkuntza indibidualistan hezitako pertsonak ez du hazteko gaitasunik, pertsonarteko harremanak ez baitira bultzatzen. Aitzitik, harremanik ezak pasibitatea dakar eta pasibitatea bakerako heziketaren kontrako termino eta praktika da.

- Bistako eta oinarritzko ondorio gisa, aintzatetsi behar da ez dagoela gatazkarik eza, ez eta pertsona ezgatazkatsurik ere.
- Esangura horretan, pertsona gatazkatsuen aldeko apustua egiten dugu, alegia, bizi diren eta elkarren arteko harremanak dituzten pertsonen aldekoa.

Eta esangura bertsuan, harrezkero, gatazka ez da berez zerbait negatibo edo positiboa. Izaera positibo edo negatiboa harremanak izateko eraren arabera izango da; beraz, harremanak izateko modua menekoa, meneratzailea edo berdintasunezkoa izan daiteke. Positibo edo negatiboa, bizi diren eta elkarren arteko harremanak dituzten pertsona desberdinen arteko borroka gainditzeko era da. Horrez gain, gatazka gure garapen pertsonalerako beharrezko faktoreak dira, baita guk parte hartzen ditugun kolektibo zein taldeetarako ere. Hortaz, gatazkan, harreman bizitzan, hezi behar dugu gure burua; bizi ditugun gatazka deskubritzen ikasi, euri aurre egin, euren kariak ikertu eta pertsona gisa haztea ahalbidetzen duten erantzun positiboak emateko gai izan behar dugu.

Inozo hutsak izango ginateke, pasarte honetan azalduko ez bagenu alor honetan hain zuzen sortu ohi direnik gizarte eta kultur baldintzatzaile negatiboenak. Historian, gatazka konpontzeko, gizarteak eta gizateriak irtenbide bortitza erabili izan du eta ondorioz, eraginik izan du gure iritzian. Gure gorputzak, gure pentsakerak, baita gure sentimenduak ere, gatazka saihesteko erantzunak eman behar ditu, batetik, edo, bestela, ageriko erantzun bortitzak. Gehiengoaren iritzia kontra borrokatzen ari gara eta horren jakitun gara; horregatik, gatazka eraldatzea aztertu eta horren gainean sakontzeari berebiziko garrantzia ematen diogu.

1.4. Oldarkortasuna

Aurreko lerroaldean baldintza sozial eta historikoei buruz hitz egiten genuen; honetan, aldiz, gizateria are gehiago eldarniatu da eta jarrera jakin batzuk saiatu da bidezkotzen, izaera zientifikoa eta, beraz, ezin eztabaidatzekoa emanez. Darwin-ek, pasa den mendean, espezien eboluzioari buruzko teoriak plazaratu zuenetik eta giza izaera modu zientifikoa deskubritzeko interesa sortu zenetik, ondoko esaldiak hasi ziren entzuten: "gizakia bortitza da berez", "animaliak bezain bortitzak gara", etab. ; ildo horretatik, bizitzeko bortizkeria hutsa eta gizakiena bakarrik zena bidezkotzen ziren. Jatorrietara -Darwinera, etab. - jo behar da eta irakurketa objektiboagotik, oldarkortasun eta bortizkeria ezberdintzen ikasi behar dugu. Horrez gain, beste idazle batzuk aztertu behar dira: Santiago Genovés, Malinowski, Margaret Mead, John Bowlby eta egungo beste zientzilari, antropologo, biologo, etab. batzuk. Oraintsu adierazitako irakurketak beste ikuspuntu argiagoak agertzen dizkigu: oldarkortasun terminoa berreskuratu behar dugu, baita bortizkeriatik bereizi ere.

Animalien mundua oldarkortasunez beterik dago, baina ez da mundu bortitza. Nolanahi ere, nahiz eta ideologiaren aldetik guztiz materialistatzat jo, zientifikoki onartu beharra dugu gizakia ez dela animalia eta bortizkeria gizakien kontua dela. Are gehiago, dokumental, filme eta gainerakoetan aurkezten zaigun mundu basatia gure irudimena baino ez da. Animaliak oldarkorrek dira, baina ez dute bortizkeria hutsa praktikatzeko; egin-eginean ere, zientzilariek animalia "bortizkeria" "hezitako" abereen artean baino ez dute frogatu, hau da, gatibu ditugun animalien artean edo gizakien bortizkeria ikasi, ikusi eta jasan dutenen artean. Animalia horien bortizkeria ez da inoiz izan amarruzko eta aldeztu aurretik pentsatutako bortizkeria, hots, gizakiena bezala.

Demagun, egunen batean, animaliak duindu eta "animalia" izena izen amoltsu eta positibo bihurtuko dela; modu horretara, errealtatean gertatzen dena hobeto islatuko da.

Hortaz, zer da Giza Oldarkortasuna? Zientzia oldarkortasuna berezko jarreratzat hartzen hasia da, hau da, oldarkortasuna jarrera biofiloa da batez ere. Horren kontrakoa pasibitatea izango litzateke. Gizakiak garen heinean, pertsonok bizitzeko gaituzten instintu eta pulsio batzuk ditugu eta oldarkortasunaren bidetik erreakzionatzeko gaitasuna lortzen dugu espeziea elikatu eta iraunarazteko. Baina ideia horretatik bortizkeria bidezko zera leizezuloa dugu: herri aberatsek osatutako lehenengo mundu honetan irakurtzen dakigun pertsonak bizi gara eta tripa ase-ase eginda dugu. Horren harira, galdera honakoa izango litzateke: zein egoeratan hil behar da bizirik irauteko? Dena den, pertsonok izaki "oldarkorrek" gara bizitzari eta pertsona eta gizarte gatazkei aurre egiteko. Oldarkortasuna, ondorioz, bizitzari aurre egiteko gure jokabidea da, baina ez bizitzaren kontrakoa.

Oldarkorra eta bortitza parekatzeari uztea kostako zaigu, bata bestearekin ez baitauka zerikusirik (euskaraz ez daukagu erdaraz dagoen hitz jokoa, agresión terminoaren inguruko jokoa alegia).

Esangura soziolinguistikoagoan, gizartean oldarkortasuna eta bortizkeria terminoak ez dira modu berean erabiltzen; oldarkortasuna bortizkeria baino leunagoa da herri hizkeran. Eraso bortitza bidezko zera, eraso oldarkorra izan dela esan ohi da.

Oldarkortasunaren kontzeptua positibo bihurtzeko, esaten dugu oldarkortasun handiagoa behar dela gatazkei irtenbide ez bortitza emateko, esaterako, gatazkek sortu ohi dituzten erantzun bortitzei aurre egiteko.

1.5. Bortizkeria

Goian esandakoaren haritik, termino hori mugatuago bihurtzen doa: bortizkeria gizakiena da eta gizakiok baino ez dugu ulertu eta praktikatzeko. Eta gizakiona denez, aukerakoa da.

Gure iritziz, honakoa da bortizkeria: pertsona edo erakunde jarrera zein portaera aktibo nahiz pasiboa, bai pertsonak bere buruarekin, baita gainontzekoekin eta baita ere naturarekin duen harmonia hausten duenean, ekintza bortitzen bidez (egoera bortizkeria) edo egoera bortitzen bidez (erakunde bortizkeria).

Harmonia haustea ekintza fisiko, intelektuala bezala ulertzen dugu, egin nahi ez dena egitera (zapalkuntza) edo egin nahi dena ez egitera (errepresioa) edo egin nahi ala ez nahi dela jakin barik berori egitera (eraginako pasibitatea) behartzen gaituena.

Bortizkeria harmonia edo justiziarik gabeko egoera bat baino ez da; egoera horretan, pertsonak ezin du bere burua garatu eta ez dago berdintasunik.

Ezinezkoa da bortizkeria aztertzea, beste era batean esanda, ez dago aukerarik testuinguru kritikoan kokatzeko, baldin eta lehendabizi ez badu bortizkeriaren errealtateak, bertan eraginik daukaten faktoreak, eragileak aztertzen ez badira.

Bortizkeria munduan eta pertsonen artean gehien erabiltzen den bidea da (besteak ez bortizkeria da), gatazkei aurre egiteko. Aldi berean, modurik txarrenea da ikuspuntu intelektual eta zientifikotik: bortizkeriaren ostean ez dago asetasunik.

1.6. Ezbortizkeria

Kontzeptuak berak ez du ezer ukatzen, kontzeptu hutsa da berez eta horregatik idazten da dena batera.

Harmonia hirukoitza bilatzean oinarrituriko jarrera/portaera da: pertsona bere buruarekin, gainerakoekin eta naturarekin. Ezbortizkeria bizitza koherentziaz bizitzea da ondoko baloreak kontuan izanda: lankidetzat, elkarriketa tolerantzia, harreman enpatikoa, integrazio ekologikoa, gardentasuna, jokabide ludikoa, autonomia solidarioa, gogoeta egin eta hausnartzeko gaitasuna, berdintasunezko justizia, desarme pertsonala eta utopia osasuntsua.

Ezbortizkeria eta pasibitatea erlazioan oinarritu ohi dira, termino guztiz kontrakoak izan arren. Erlazio hori ezartzea borrokarako jarrera aktiboa hartzea da, bortizkeriaz baliatzen den gizarte eta munduaren aurka.

Gatazkei aurre egin eta eurak eraldatzeko beste aukera da, beraz, gizarte estrategia eraldatzaile gisa egituratzen da eta ekintza pedagogikoan oinarritzen da.

Ekintza horretan denek hartzen dute parte, dirigismo eta sumisiorik gabe. Halaber, ekintza hark injustiziari laguntasunik ez emateko jarrera aktiboa dakar, hau da, injustiziaren aurka borrokatzeko jarrera; ondorenez, helburu eta bitartekoen arteko koherentzia erakutsi behar da eta indarren arteko berdintasunezko harremanak bilatu behar dira. Gatazkak konpontzeko, gure ustez, modurik onuragarriena da.



The Earth. 1969

2. Bortizkeria errealitatearen aztertzea

Bortizkeriaren errealitatea aztertu gura dugunean, oinarritzkoa da jakitea zergatik egin nahi dugun. Ondoko bidetik etor dakiguke erantzuna: azterketa egiten dugu errealitate hori ezagutu ahal izateko eta ezagupen horrek gure portaera bideratuko du.

Gatazka dagoenean, horri berorri aurre egin behar diogu metodologia zehatz baten bidez eta helburuak oso ondo definituak edukita, alegia, alferrikakoa utzi eta mamira joz. Gatazka bera ulertzeak aurre egitea errazten du.

Gatazka ikuspuntu neutro eta neurtutik aztertu nahi badugu, gatazka modu serio eta zuhurrean aztertuz gain, gatazka horren inguruko errealitatea ezagutzea ahalbidetzen duen metodologia egokia erabili behar da. Aldez aurretiko ezagupen horrek bakarrik eskainiko digu gatazka bere osotasunean ikusi eta, aldi berean, gatazka bera eraldatzeko agente bihurtzea.

2.1. Metodologia

Oinarritzat jotzen dugu metodologia hau, baita geureganatzea ere; metodologia horrek tradizio dialektikoa hartu behar du eta mota askoko taldeek arrakastaz erabili dute. Ez da beharrezkoa teoria erraldoirik sortzea, ez eta antzekorik ere. Metodologiak zehatza eta identifikakorra izan behar du, espiritu unibertsalarekin (baliagarria egoera guztietarako edo ia guztietarako), baita aktibo eta eraldatzailea ere. Halaxe proposatzen dizuegu, uste dugulako hezitzaile orok erabil dezakeelako.

Metodologiaren oinarria honelaxe azal daiteke:

IKUSI

BALORATU (HAZTATU)

EKIN

NEURTU

IKUSI diogunean, errealitateari arreta ematea esan nahi dugu, hau da, behatu, deskribatu eta aztertze gure gaitasuna eragitea. Errealitateak berak hitz egingo digu bere alde positibo eta negatiboei buruz eta geuk deskubritu behar dugu zein esparrutan gauzatzen diren egitate horiek eta euren datuak, kariak eta ondorioak.

BALORATU diogunean, egitateak baloratu behar direla esan nahi dugu, hau da, gure ikuskeratik (talde bakoitzarenetik), aurreko urratsean xehe-xehe egin dugun errealitatea haztatu behar dugu. Jarrera zehatz bat hartu behar dugu, baina ez edozein jarrera hartuz, baizik eta gure hezkuntza proiektuan jasotako jokabide eta baloreak kontuan hartuz, gure lana bultzatzen dituztenek. Hots, errealitatea baloratu behar dugu gure proiektutik ikusita, hutsuneak eta errealitate horrek eskatzen dizkigun iharduerak deskubritzeko.

Hurrengo urrats logikoa EKITEA da. Ezin daiteke izan asmo adierazpen hutsa, ekintzarako benazko programazioa baino; eta programazio horri dagozkion helburuak, tresnak, iragankortasuna eta ebaluazioa kontuan hartu behar dira. Ondoko galderei erantzun behar zaie: zer, zelan, noiz, norekin, non, zein mailatan, zein sakontasunekin eta abar?

Bukatzeko, ezin dugu inolako hezkuntza prozesurik ulertu, NEURTU barik. Lehen egindakoa berrikusi behar dugu, errealitate berriarekin konparatu behar dugu, hezkuntza ekintzaren osteko talde erreakzioa baloratu behar dugu. Aurrekoak ezinbesteko pausoak dira, alegia, ekintzaren eta geroko hausnarketaren arteko zubiak dira; horrela, gure hezkuntza lanari eutsi ahal izango diogu. Nolanahi ere, maila horretan ezin dugu lotan geratu, ebaluaketa oso urrats garrantzitsua baita, beharbada, garrantzitsuena prozesuaren barruan; horretarako plangintzak oso zehatza izan behar du. Are gehiago, une jakin batean, oso

beharrezkotzat jotzen dugu neurtzeko prozesua bera neurtzea -ahal bada-, zertarako eta prozesu horrek dakarren aberastasuna errealitatearen azterketak behar duena den ala ez jakiteko.

2.2. Kontuan izateko proposatzen ditugun irizpideak

2.2.1. Pertsona-taldea

Kontzeptu-oinarriak eratortzen ditu gure irizpideak eta oinarri hori "pertsona-taldea" da. Halaber, bi kontzeptuak zehazten dute aurrekoa:

- Batetik, pertsona eta taldea erlazionatzen ditugu, pertsona talde horretan (talde ingurua) murgiltzen baita; eta bestetik, gizartearekin berarekin erlazionatzen dugu pertsona, gizartean eta taldean bertan eragina baitauka pertsonak.
- Inoiz ez gara elementu pasiboak gizarteratzen ari garen bitartean, aktiboak gara: gizarteak eta pertsonok elkarri eraginik sortzen diogu. Gizarteratze prozesuan -amaigabeko prozesua da, bizitza osoan gizarteratzen ari baikara-, gudan eragina duten baloreak taldeari eskaintzen dizkiogu; hortaz, horrelaxe zehazten dira nolabait taldeak eta gizarteak berak izango dituzten baloreak. Garrantzitsua da kontuan izatea aurreko prozesua "itzulgarria" dela: pertsonak nahita edo nahi gabe eskaintzen dizkie bere baloreak talde eta gizarteari; beraz, pertsonak eragina du taldean eta gizartean bertan, talde eta gizarte horrek transmitituko dizkioten baloreak eraldatuz.

Ikuspuntu soziologikotik ikusita, gizarteratze prozesua zirkulu zentrokideen bidez definitzen da, eta pertsona da zirkuluaren zentroa.

- Pertsona da, hortaz, elementu zentrala eta pertsonaren harremanek gainerako zirkuluak osatzen dituzte. Gauzak horrela, pertsonaren inguruko lehen zirkuluan familia dago. Hurrengo zirkuluan eskola sartzen da eta eskolak bi eratara iharduten du: trebatze elementu gisa eta beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko aukera gisa. Beste zirkulu batean erlijioa (fededunen kasuan), lana (edo langabezia), hedabideak eta abar egongo lirateke. Interesgarria da gizarteratze prozesua zirkulu zentrokideen bidez definitzea. Hala ere, zirkulu horiek desberdinak dira 40 urteko pertsona baten kasuan eta 8 urteko neskato edo mutiko baten kasuan. Lehenengoari gehiago eragiten dio lanak familiak baino. Bigarrenari, ostera, heziketa formalak eragiten dio batik bat, ez baitu horrenbeste denbora ematen etxean. Nolanahi ere, familia dago beti pertsonarengandik hurbilen (gurusoak, bikotea).

Onartzen dugu heziketa dela gizarteratze prozesuaren ardatza eta prozesu hori honela banatu dugu:

- **FORMALA:** Arautua, hau da, sistema formalizatuan dagoen heziketa (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, unibertsitateak, CIP, eskolatik kanpoko iharduerak, Helduen Heziketa Iraunkorra, etab.).
- **EZ FORMALA:** Hau ere hezkuntza arautua da, hots, bere helburuak dituen, baina beste eremu eta maila batzuetan garatzen dena. Honakoak bilduko genituzke arlo honetara: aisialdiko heziketa, bolondresgo taldeak, elkargokidetza, etab.
- **INFORMALA:** Gainerako hezkuntza sartuko litzateke arlo honetan eta, hasieran behintzat, ez du helburu pedagogiko programaturik (kalea, poteoa, hedabideak, koadrila, etab.); edonola ere, zenbaitetan (telebista, musika, moda, markak, etab.) badago halako ezkutuko helburu pedagogikoa, gizarteko balore nagusien arabera.

Garrantzitsua da azpimarratzea hezkuntza ororen izaera manipulazalea dela eta hezkuntza ororen helburua pertsona eredu sortzea dela. Hori dela eta, talde bakoitzaren azpian pertsona proiektua, hau da, pertsona eredu eta hezkuntza eredu/proiektua dago. Eredu hori manipulazalea da, gainera, kontuan hartu behar da gure hezkuntza proposamena manipulazalea dela; izan ere, horrexetan datza gure ereduaren eta besteen arteko desberdintasuna. Azken horiek ere manipulazaleak dira, baina beste modu batera eta bestelako baloreen arabera manipulatu dute. Hori ez onartzea zure burua eta taldea bera engainatzea da.*

2.2.2. Egoera:

Gogoan izan behar da gaur egungo egoera ez dela berez gertatzen, ahaztu ezineko faktoreak aintzat hartu behar direlako.

Pertsonak eta taldeak dituzten eragileak aztertu ondoren, analisia bera jorratuko dugu: demagun gatazka bat dagoela.

Hona hemen, analisiaren mailak:

- Zein pertsona, talde, nazio edo herriekin gertatzen da gatazka.
- Metodologiaren bidez, gaur egungo egoeran koka zaitezke, gaur egun gertatzen ari denaren berri izan dezakezu, hots, gaur egungo eragileak (gatazkaren garapena, zergatia, ingurukoak, etab.) eta gatazkaren oinarriak zeintzuk diren jakin dezakezu.

* *Ikus Hezkuntza kontzeptua, 17. orr.*

Gaur egungo egoera garatzen doan une zehatz batean gertatzen da. Oinarri bera izan arren, gatazka desberdinak sor daitezke, azpian dauden beste gatazka batzuk azalera daitezkeelako.

Egoera balioestean, ezin dut gaur egungo egoera soilik balioetsi, lehenago gertatutakoa ere baloratu behar dudalako. Ekintzak gauzatzean, ezin dut egun dakusadana soilik kontuan hartu, hau da, ezin naiz horretan soilik geratu (atzera eta aurrera begiratu behar dut).

2.2.3. Bortizkeria motak:

Bortizkeria motak sailkatzen saiatzen gara, bortizkeria hainbat modutara ager daitezkeelako; dena dela, zaila da mota horiek bereizirik agertzea eta batera ageri ohi dira. Honelako batzuk...

- Armatua.
- Kulturala.
- Ekologikoa.
- Ekonomikoa.
- Lan mundukoa (nahiz eta erasorik egon ez).
- Belaunaldien artekoa.
- Militarra.
- Pasiboa.
- Politikoa.
- Generoaren arabera.
- Arrazista.
- Sexuala.
- Soziala.
- ...

Gure helburua gatazka bortitza zuzenean aztertzea da. Gatazkak bereizi beharra dago, gatazka guztiak desberdinak baitira eta, besteak beste, bitarteko eta xede desberdinak baituzte. Bortizkeria armatua baino ez dagoela uste izateko joera dago, hori delako bortizkeriarik agerikoena, gehien ikusten dena eta gehien aipatzen dena. Badira, ordea, are arriskutsuagoak diren bortizkeriak, ez sortarazten dituzten ondorioengatik, baizik eta agerian ez daudelako eta halakorik dagoenik ere ohartzen ez garelako. Hori dela eta, bortizkeria naturalizat jo ohi dugu.

Adibiderik argiena bortizkeria estrukturala da (politikoa, ekonomikoa, soziala), hots, sistemaren baitako bortizkeria. Modu subjektiboan onartzen den bortizkeria da. Sarritan ohartzen ez bagara ere, oso nabaria da eta graduaturik dago (klase ertaineko 50 urteko gizonak jasaten duen bortizkeria estrukturalaren eta beheko klasean dagoen 20 urteko emakumeak jasaten duenaren arteko desberdintasuna).

Espektro politikoa, soziala, kulturala, erlijiosoa eta morala ditu beti egon den, egongo den eta berez onartzen den bortizkeria horrek. Horixe da, hain zuzen, lehenengo eta behin ezabatu beharreko bortizkeria.

Puntu hau bukatzeko, eskema gisa adieraziko ditugu zenbait faktore, hala bortizkeria gainditzen lagun dezaketenak, eta beste batzuk bortizkeriaren euskarri direnak. Ohartu beharra dago faktore horiek gutxitan agertzen direla isolaturik eta kasu batean, zein bestean erlazionaturik, konbinaturik edo banandu ezinik ageri direla.

Bortizkeriaren euskarri diren faktoreak:

Modu aktiboan:

- Lehia.
- Hierarkia eta sumisioa.
- Militarismoa.
- Justizia sozialik eza.
- Kontrola (politikoa, ideologikoa, ekonomikoa, hedabideetako).

Modu pasiboan:

- Pasibitatea.
- Sumisioa.

Bortizkeria gainditzen laguntzen duten faktoreak:

- Elkartasuna, justizia, lankidetzeta.
- Komunikazioa, enpatia, elkarriketa.
- Egiazaletasuna, koherentzia.
- Gatazkaren ezaguera, gatazka aztertu nahi izatea.
- Gatazka konpontzeko ezarri diren arauak errespetatzea.
- Gatazka konpontzen emandako denbora.
- Partaideek gatazkan eta gizartean izan duten eskuhartzea.
- Integrazio ekologikoa.



El llanto. 1969

3. Bakerako hezkuntzaren helburuak

3.1. Prozesu soziala:

Prozesu soziala deritzogu bizi garen gizartean elementu aktibo izateari, hau da, gizartean parte hartu, sortu eta eragiten duten elementuei, bestela esateko, elementu eraldatzailei.

Ezin dugu ahaztu gure, taldearen eta proiektuaren eskuhartzeak, faktore batzuen eragina duela eta faktore horiek azaldu beharrekoak direla: zer-nolako gizartea eratu nahi dugun eta, hezitzaile legez, zein den sortu nahi dugun pertsona erdua.

3.1.1 Zer-nolako gizartea nahi dugun

Abiapuntu gisa esango dugu gizartea bertan bizi diren pertsonen osatzen dela eta pertsona bakoitzak eragina duela gizartean, modu pasiboan zein aktiboan. Prozesua itzulgarria dela kontuan hartuz gero, hots, "gizarteak eragina du pertsonengan", garrantzitsua da aktiboki eratu eta taxutu nahi dugun gizartea definitzea.

Gizartea:

- Ez aberatsa, ez behartsua: sozioekonomiari dagokionez, justua (justizian oinarriturikoa). Berdintasunezkoa, tolerantia, elkarriketarako irekia eta apala.
- Harmonian eta elkarrekiko errespetuan oinarriturikoa eta enpatikoa.
- Lehiarik gabekoa eta, beraz, elkartasuna eta ez pertsonen arteko etengabeko lehia bultzatzen duena.
- Antimilitarista.
- Globala, plurala, anitza, ñabarduraz josia eta ezuniformea. Gatazkak bortizkeriarik gabe konpotzeko aukera ematen duen gizartea.
- Muga eta loturarik gabeko gizartea, non herri bakoitzak bere nortasuna baitu eta nortasun hori beste herriei transmititzen baitzaie, nahiz eta besteen kulturak errespetatu.
- Erabakiak hartzean, adostasunaren bidetik jotzen duena, gehiengoan iritzia derrigorrez aintzat hartu barik.

3.1.2. Pertsona ez bortitzaren eredurako proposamena

Gure lana heziketa da. Pertsonak hezi nahi ditugu eta, horretarako, heziketa lana dela bide, zein motatako pertsona lortu nahi dugun azalduko dugu. Ulertu beharra dago arlo honetan jorraturiko aldeak aisialdian pertsonekin eta taldean landu behar diren gutxieneko aldeak direla. Hona hemen adibide batzuk: gorputzaren ahalmenak ezagutzea, errealitate emozionala onartzea, pertsona izatearen kontzientzia hartzea, gizarteko ingurugiroarekin elkarrekintzan aritzea eta konpromisoa hartzea eta Euskal Herriaren kultura, nortasuna, natura defendatzea, etabar.

Pertsona:

- GATAZKEI AKTIBOKI AURRE EGITEN DIENA: gatazkei antzematen diena, salatzen dituen eta, ez bortizkeria kontutan izanik, irtenbideak proposatzen dituen.
- BEREZKOA: naturala, hau da, pentsatzen, sentitzen eta desiratzen duena azaltzeko gai dena.
- KOHERENTEA: benetakoa, hots, pentsamenduarekin, esanarekin eta egintzarekin bat egiten duena.
- EGIAZKOA: egia maite duena eta egia bilatzen duena, bestearen aurrean egia azaldu eta defendatzen duena, beti ere, koherente izanik.
- ELKARRIKETARAKO IREKIA-TOLERANTIA: errespetutsua eta esaten diotena ondo hartzen dakiena, bestearen jarrera kritikatu eta beraren ikuspuntua azaltzen badu ere.

- AUTONOMOA: besteekiko harremanetan soilik da menpeko.
- LANKIDEA: helburu berberak dituztenen taldean partaide izanik, denon ekintzen bidez erraz adoretzen dena.
- SENTTSIBLEA: eguneroko gauzek eragiten diotena.
- LUDIKOA: bizi-poztasunaren erakusgarri diren joko, jai eta sormenari dagokionez, besteekin harremanak dituen.
- KRITIKOA-MANAGAITZA: jarrera aktiboa izanik, injustiziarako bide diren gertaera eta pertsonak erlatibizatzen dituen; beharrezko izanez gero, horien aurka jartzen dena eta injustiziarekiko laguntza pasiboari uko egiten diona.
- ENPATIKOA: modu aktiboan eta elkarriketa tolerantaren bidez diharduena, bestearen lekuan jartzen dena eta, jarrera adeitsua izanik, besteei ulertzen ahalegintzen dena, egiazko giza harremanak ahalbidetzeko.
- BERE BARRENA ABERASTEN DUENA: bere ideiak eta sinesteak kontutan hartuz, gauzak eta gertaerak bideratzen dakiena.
- EKOLOGIAREN MUNDUAN INTEGRATURIK DAGOENA: natura errespetatu eta defendatzen duena, gureganako errespetu eta integritatearen zati den heinean.

Ondoko baloreei jarraitzen diotena:

- ELKARTASUNA: pertsonetikiko atxikimendua, gizadian integraturik egonik.
- JUSTIZIA: pertsonetikiko eta inguruarekiko harremanak behar dituen bizi-tentsioa da; harremanok berdintasunean, elkarrekiko errespetuan eta lankidetzaren sozietatean oinarritzen dira, norberaren errealizazioa lortzea baita helburua.
- UTOPIA: errealitateetik kanpo dagoen ideala bada ere, beharrezkoa da errealitatearen aldaketa bultzatzeko.
- DESARMATZEA-ANTIMILITARISMOA: jarrera, ekintza eta, oro har, pertsonen arteko harremanetan boterea ematen diguten "arma" guztiez desjabetzea eta jarrera uniformatzaileak eta artifizialak saihestea.

3.1.3 Gure gizarte ekintza-proposamena: bakerako heziketa

Besteak beste, gizartean esku hartzearen aldeko proposamena egin dugu eta pertsonen, beraz, gizartearen eraginaren bidez bideratzen da proposamen hori. Bideratze hori lortzeko, heziketa ereduak garatu behar da. Eredu berria ez bada ere, berritzailea da, pertsona berriak eratzea baitu helburua.

Bakerako hezitzaileen lana, hortaz, lan indibiduala eta kolektiboa da: alde batetik, indibiduala, taldeetan indibiduo gisa eragiten duten pertsonak hezitzen dituztelako; bestalde, kolektiboa, talde horiek gizartean eragiten dutelako, hots, aktiboki lan egiten dutelako.

3.1.4. Bakerako hezitzaileen konpromisoa

Balore berriak bultzatzea da xedea, hau da, pertsona berria eratzea. Pertsona berri hori ezin daiteke modu indibidualean ulertu, garrantzitsua baita taldean eragina izatea, beharrezko diren aldaketak aurrera eramateko.

Gaur egun, balore berriak sustatu nahi badira, helburu hori bultzatzeko pertsonak behar dira: HEZITZAILEAK.

Hezitzaileak arduratsua behar du izan eta ikasitakoa transmititu behar du. Eredu koherente izan behar du edukietan eta praktikan. Gainontzekoekin hitz egin behar du, beraren iritzia azaltzeko eta elkarrizketaren bidez gatazkei aurre egiteko. Kritika eta eztabaida bultzatuko ditu, baita heziketa jasotzaileen protagonismoa ere.

Azken finean, hezigaiengan errotu nahi dituen balore eta jarrerak onartu behar ditu hezitzaileak eta ahaleginak egingo ditu, sortu nahi duen gizartearen aitzindari gisa bizitzeko.



El abrazo. 1972

4. Garapena

4.1. Nola gauzatu hori guztia?

Euren baitan bizitzeko ahaleginak egiten dituzten eta balore eta jarrera jakin batzuk sorrarazten dituzten hezitzaileen lana ezin da ezagueren edo bizitzan nolabait baliozkoa den informazioaren transmisio hutsean geratu. Errealitatea eraldatzeko, hezigai bakoitzaren eta, beraz, taldearen konpromiso pertsonala lortu nahi dugu.

Konpromiso hori lortu nahi bada, ez da nahikoa hurbileko edo urruneko errealitatea ondo ezagutzea, ez eta ezkutuan egon diren errealitateez jabetzea ere. Premiazkoa da, horrez gain, errealitate hori osotasunean eta elkartasunean ulertzea. Beharrezko da errealitatean partaide izatea, nahiz eta errealitate hori urrun egon; beharrezko da, era berean, pertsonak bere gain hartzea errealitatearen ondorioak, neurri txikian izan arren. Azken buruan, ikasi egin behar da emozio enpatikoetatik abiatzen eta emozio horrek azalerarazten ditu pertsonaren eta, hortaz, taldearen eta gizartearen eraldaketa ahalbidetzen dutuzten jarrerak.

IKUSPEGI SOZIOAFEKTIBOA deritzogu horri. Enpatia oinarri hartuz, informazioaren transmisioa eta bizipen pertsonala konbinatzen ahalegintzen da ikuspegi sozioafektiboa. Konbinazio horren helburua da afektibitatean oinarritutako jarrera agertaraztea, jarrera horrek pertsona bera alda dezan. Beraz, beste pertsonekin etengabe harremanak dituen gizarteko pertsonak bizi, sentitu, aztertu eta deskribatu behar ditu egoera errealak edo ahalik eta errealean. Horrezaz aparte, gai izan behar da bizi izan duena besteei jakinarazteko. Hots, norberak bere esperientziaren arabera ikasi behar du. Beste era batera esanda, bizipenak irakatsi behar digu.

Ondoko urratsak eman beharko dira:

- Aldez aurretik, behar bezalako giroa sortu beharra dago, lasaitasuna eta konfiantza egon dadin taldean. Izan ere, taldeko tirabirek pertzepzioa ahultzen dute (halakorik badago, irtenbideren bat aurkitzen ahalegindu beharko da).
- Landu beharreko errealitateari buruzko joko, dinamika, simulazio eta abarrekin hasi behar da jarduera. Guztiek parte hartuko dute erabat prestatutako jarduerak horretan; hala ere, izango du naturaltasunerako halako tarte ere. Jarduerak denbora tarte zabala behar du garatzeko, nahiz eta tarte neurtua eta kontrolatua izan.
- Behin jarduera amaitutakoan, sentimenduak denon aurrean azaldu eta ebaluatu behar dira. Honako galderari erantzun behar zaio: nola sentitu zara? Erabateko askatasunez azaldu behar dira bizipenak eta ezin da inola ere baloraziorik egin. Esperientziak baliozkoak dira, izan diren neurrian. Pertsona bakoitzak bere izakera du, jardueran izan duen lekuaren arabera.
- Jarraian, bizi denaren ebaluazioa egiten da. Garrantzitsua da jokotik edota interpretaturiko pertsonailetatik "kanporatzea" eta, modu berean, esperientzia eta errealitatea harremanetan jartzea. Maila honetan, garrantzitsuagoa da errealitatea eta esperientzia elkar lotzea, sentimendu pertsonalak azaltzea baino. Gerta daiteke bizi izandako errealitatea beste era batera interpretatu behar izatea, bai eta esperientzia indartzeko informazioa edo ezaguerak eman behar izatea ere. Hezitzaileak muzin egingo die irakaspen errazegiei, baita bizi izandako esperientzia dogmatizatzeari ere. Garrantzitsuena hau da: hezigaiek errealitate hori aurkitu eta horretaz "ohartzea". Ondoren, lan "emankorra" (zer egin dezakegu bizi/ezagutu dugunari dagokionez?) erakargarri bihurtzen da eta beste dimentsio batera pasatzen da.

4.2. Taldearen prozesua oinarri gisa (bost urratsak)

Heziketa lanak pertsonak hartzen ditu oinarri gisa; beraz, arreta jarri behar die pertsonen berezitasun, ezaugarri eta gaitasunei. Berdin esan dezakegu hazten doan pertsona hori babesten duen taldeaz.

Bortizkeria-ezean datzan hezkuntza oinarritzkoa aztertu eta gero, hau da, heziketaren ikuspegi sozioafektiboa jorratu ondoren, taldearen prozesua aztertu beharra dago. Taldearen garapena aztertzen badugu, taldearen dinamika ondo ezagutzeaz gain, taldearekin batera jardun ahal izango dugu, taldean egon daitezkeen gatazkak konpontzeko. Horretara, gizartean agertzen diren talde gatazken arloan egindako lana lehenago egindako lanaren ondorio da.

Hauek dira heziketa lan horretarako behar diren tresnak:

- Errealitatearen analisia. Errealitatean ageri den bortizkeria aztertuz gero, heziketa lanak benetako beharrian eta gabeziak asetzeko helburua izango luke. Aztertu dugu jadanik alor hori; hortaz, ez dugu besterik aipatuko.
- "Taldea prozesuaren bost urratsak" deiturikoa. Bakerako heziketa prozesu bat da, zeinek urrats jakin batzuk eman behar dituen helburua lortzeko. Atal honetan jorratuko dugu arlo hori.

Gorago aipatu "bost urratsak", elkarren artean loturik daudenak, bakea egin nahi duten pertsona ezbertitzen bidea da. Ez da nahitaezkoa etapa horiek beti kronologiaren arabera antolatuta egotea, baina prozesu baten elementu direnez, dinamika logikoa izan behar dute; hau da, etapak bata bestearen atzetik etorri behar dira, eta aurreko etapak garatuta behar du egon, prozesua behar den moduan bidera dadin. Beste hitzez esanda, garrantzitsua da unean-unean taldea prozesuaren zein mailatan dagoen adieraztea, eman beharreko urratsak zeintzuk diren jakiteko. Nolanahi ere, azken urratsa positiboa izan dadin, hots, gatazkak bortizkeria-ezean oinarrituz konpon daitezen, beharrezkoa da aurreko urratsak ezagutzea.

Talde baten osaketan hainbat etapa daude. Guk eratu gura dugun taldean pertsona guztiak gustura eta estimaturik senti daitezen nahi dugu, taldeak elkartasunerako asmoa izatea alegia. Horretara, gatazkei eta komunikazioak dakartzan arazoei ezbertizkeria aplikatuz aurre egingo die taldekideek.

A.- TALDEAREN LASAITASUNA

Kontua da pertsona guztiak taldean eta taldearekin gustura, pozik, lasai^o egotea da. Horretarako, beharrezkoa da taldekideek elkar ezagutzea eta taldea bera lasaitasunean egotea. Garrantzitsua da heziketa taldea zein unetan edo mailatan dagoen aztertzea; hala ere, esan beharra dago, taldekideek euren izenak jakiteak ez duela esan nahi euren artean gustura daudenik. Esan nahi baita garrantzitsua dela giro lasai eta atsegina sortzea.

B.- NORBERAREN FINKATZEA ETA ESTIMUA

Lehia, gutxiespena eta anonimatua nagusi diren hezkuntza kultura batean, norberaren finkatzearen eta estimuaren alde egiten ahalegintzen gara. Pertsona bakoitzak duen ezaugarririk garrantzitsuena kontuan izanik, eginahalak egingo ditugu maitatua eta estimatua senti dadin eta taldearenganako beldurra eta segurtasun eza gaindi ditzan. Elkarrekin gustura egoteaz gain, lasai eta eroso gaude eta batak bestearen ardura hartu eta elkar estimatzen dugu.

Hezitzaile garenez, arreta berezia eskaini behar diogu hezigai taldearen balorazioari, etapa horretan aktiboki eta inkontzienteki jarduten baitute gure gutxiespenek, nahiz eta oso zorrotzak izan.

C.- TALDE KOHESIOA

Konfiantza eta lankidetzaren bezalako baloreak bultzatu nahi ditugu, gizartean nagusi diren lehia, konfiantza eza eta indibidualismoaren aldean. Pertsona bakoitzak taldearen beharra senti dezala nahi dugu, hau da, beste pertsonekin harreman konstruktiboak izateko beharrezkoa izan dezala. Taldean eta taldearen alde gaude, konfiantza baitugu pertsonengan; eurekin lankidetzan arituz gero, bakarrik lortu ezin ditugun helburuak erdiets ditzakegu. Beste pertsonak osagarri ditut eta segurtasuna ematen didate.

D.- KOMUNIKAZIOA

Konfiantza dugu taldearengan eta taldearen beharra izateaz gain, maite dugu; gainera, lankidetzaren balore positiboa dela ondorioztatu dugu. Taldean komunikatzeko ordua iritsi zaigu. Orain errazagoa da gure arazoak, larritasunak eta iritziak azaltzea eta, bestalde, gure adiskidetasuna ere agertaraz dezakegu.

Ahaleginduko gara taldeko pertsonen benetako komunikazioa lor dezaten; horretarako, eta, hasteko, beharrezkoa izango da ahozko komunikaziori eman zaion erabateko balioa zalantzan jartzea. Komunikatzeko modu horrek maitasuna eta samurtasuna azaltzea dakar, gizarteak modurik adierazgarrienean, gorputzaren bidez alegia, sexualizatu dituen sentimenduak. Ez dugu esan nahi sentimenduak

ahoz transmiti ezin daitezkeenik, transmititzeko moduetako bat baino ez da ordea eta, gainera, arlo honetan ez da aukerarik onena.

Horrez gain, komunikatzeko era guztiak aztertu eta erabili behar dira, taldekide guztiek aukera berdina izan ditzaten eta etorri handiko pertsonak nagusi izan ez daitezten. Talde eboluzioaren etapa honetan, gorputz ukipena erraz gertatzen da, urratsik logikoa baita elkar maite duten eta adiskidetasuna erakutsi duten taldekideen artean.

Sentimenduak azaltzeko beste bide batzuk jorratu beharko genituzke, bihar-etzi taldekideen artean berezko komunikabide gisa erabiltzeko, baina bide isolatu edo une zehatz batzuetarako joko edo jarduera bihurtu barik.

E.- GATAZKAK KONPONTZEA

Komeni da goraxeago aztertu ditugun lau urratsen aldeko aurreko garapena azpimarratzea. Giro horretan bakarrik lortuko dute taldekideek bosgarren urratsa betetzea: GATAZKAK KONPONTZEA.

Une honetan, behar bezalako erantzuna eman diezaiokegu talde eta gizarte gatazkei, gatazka pertsonalei, bai eta munduko gatazkei ere. Erantzunok berdintasunean, elkarriketa tolerantan, elkartasunean eta justizian oinarritzen dira.

Erraz konturatzen gara ez dugula ohiturarik gizartean gatazkak behar bezala konpontzeko, hau da, bortizkeriaz erantzuten dugula. Gure taldekide ere, nahi barik batzuetan, horrelaxe erantzuten dute. Argi eta garbi esan behar dugu jokabide hori aldatu beharra dagoela.

Esan dugunez, elkar ezagutu eta estimatu dugu, konfiantza izan dugu elkarrengan eta itxaropena eta maitasuna erakutsi dizkiogu elkarri, baina^o kontuan izan behar da ekintzarako trebatzen ari garela, nahiz eta prozesu hori bizipen aktiboa izan gure taldearentzat. Gatazkak behar bezala konpondu behar ditugu, hala ezkutukoak, nola nabarmenak, baita sekula sortuko ez direnak ere. Bizitzea gatazkei aurre egin behar izatea da, ez baitago talderik gatazkarik ez duenik.

4.3. Ebaluazioa

Aztertu dugu nolabait ebaluazioa, errealitatearen analisia eta hezkuntzaren ikuspegi sozioafektiboa azaltzean. Bi elementu horiek garrantzitsuak dira bortxaz ezean datzan hezkuntza lortzeko. Esan bezala, azaldu dugu zein garrantzitsua den ebaluazioa, edonola ere, berorren atala eskaini behar zaiola uste dugu, hezkuntzarako bereziki garrantzitsua baita.

Joko edo dinamiken ostean egin beharrekoa da ebaluazioa eta agente askok parte hartzen dutenean, sentimenduen eta balorazioen mailan komunika daitezke.

- Alde batetik, denon aurrean azalduko dugu nola sentitu garen, bai besteekin, bai geure buruarekin, hots, nolako bizipena izan dugun, eztabaida barik, baloraziorik gabe, besteek azaldutakoaren aurka azaldu barik, frustrazioak ahaztu gabe eta sentimendu atseginak besteekin elkar trukatu. Oso garrantzitsua da taldearen eboluzioari arreta jartzea, ezinbestekoa baita taldean tirabirarik ez sortzea, taldekideek elkar estimatzea eta taldeak halako lasaitasuna eta kohesioa izatea. Ezin dugu komunikazio eta elkarriketa sakonean aurrera egin, lehenago aipaturiko urratsak ez baditugu ematen. Izanik izan, taldearen analisia egitean, ezin gaitzaizkio analisiari estu-estu lotu, bizi izandako sentimenduen komunikazioak berak taldearen lasaitasuna, estimua eta kohesioa dakartzatelako.
- Bestalde, bizipenak errealitatearen arabera, hots, eguneroko bizitzan agertzen diren antzeko arazoekin batera ebaluatuko dira. Horrez gain, egoera horiei emandako erantzunak eta errealitatean agertzen direnak sakon aztertuko ditugu. Beste konponbiderik dagoen ikusi eta horiek aurrera eramateko moduak azalduko ditugu, taldekideen adina eta taldean izan duen garapena kontuan izanik. Esan dugunez, etapa honetan hezitzaileak muzin egin behar die irakaspen errazei eta, alderantziz, taldekideei errealitatea begien aurrean jartzen, errealitate hori guztien aurrean azaltzen, analizatzen eta behar bezalako konponbideak aurkitzen lagundu behar die.



Los soldados músicos. 1972

5. Baliabideak

Azken boladan, "bakerako hezkuntza" deiturikoa ez zaigu bitxia egiten eta esparru honen barruan dauden gehienek kontuan hartzen dute, agerian eta indartsu nolabait. Gure errealitatearen azaleko analisia eginez gero, hezitzaileek honako ekarpena egin digute: bakerako hezkuntzaren ikerketa alorrean sortutako baliabideak gero eta gehiago erabiltzen dira, jarduerak programatzean, eta alde batera utzi dira joko eta jarduera lehiatsuak, duela urte batzuk jaun eta jabe zirenak. Hori dela eta, aurrera egin da alor honetan, lankidetzan dautzan jokoak gero eta ugariagoak baitira.

Nolanahi ere, ez gaitezen inoxtokiak izan, zeren azterketa kritikoagoa egiten badugu, joko eta jarduera horien nabardurak agertuko zaizkigu:

- Lankidetzak jokoak denbora pasatzeko jokotzat erabiltzen dira.
- Gutxitan erabiltzen dira taldearen garapen prozesuan.
- Salbuespen kasuetan baino ez dira erabiltzen gatazkak konpontzeko ikaskuntzetan.

Joko eta jarduera horiek giro ona sortzen dute taldean eta hori da "ospe"aren arrazoietakoa bat; bakerako hezkuntza "light" deritzogu eredu horri, baina guk ez dugu horretan bakarrik geratu nahi.

5.1 Lankidetzan oinarrituriko joko ezbertitza

Azaldu dugunez, bakerako hezkuntza ezbertitzean bizipena eta hausnarketa dira oinarritzkoenak. Horrela, gure sentipenak azaltzen ditugu eta horixe da, hain zuzen, hezkuntzaren ikuspegi sozioafektiboa. Helburu hori lortzeko, baliabiderik egokiena erabiliko dugu: JOKOA.

Jokoaren bidez, errealitatea eta erlazionatzeko ereduak ezagut daitezke. Pertsonaren garapenerako giro egokia lortzea ahalbidetzen duen bizi-tresna da. Kultura eta gizarte guztietan erabili dute baliabide hori, ohitura, errito, kondaira eta bizimoduak transmititzeko. Izan ere, jokoak berebiziko garrantzia du jarrera eta baloreak eskuratzean, gizarteko erabilera eta trebeziak ikastean eta sentimendu eta esperientzia pertsonalak adieraztean. Jokoari esker intelektualki garatzen gara, gizarteko harreman moduak eratzen ditugu eta elkarren artean gure sentimenduen adierazpena eta eboluzioa taxutzen dugu. Esan dezakegu, gaur egun, inork ere ez duela zalantzan jartzen baliabide horien balio pedagogikoa.

Jokoak hezkuntzan duen garrantzia onartzen jakinez gero, balio handiagoa emango zaio baliabide gisa erabiltzean. Hezitzaile legez, jokoak aztertu beharra dugu eta argi izan behar dugu zein helburu lortu nahi dugun jokoaren bitartez.

Ez dugu denbora pasatzeko soilik jolasten. Jokoan parte hartzeaz gain, gure hezkuntza lanaren tresnatzat erabili nahi dugu, gure helburuekin bat datorren joko alternatiboa bultzatzen dugularik. Jokoak erabiltzen dugu, informazioa eta bizipen pertsonalak batera transmititzea ahalbidetzen duelako; ildo horretatik, aldaketa dakarten jarrera amultsuak agertarazten dira.

Jokoaren hezkuntza erabilera azaletik analizatu ondoren, ondokoa ondorioztatzen dugu:

- Joko eta kirol lehiatsuek gizarteko balore indibidualistak bultzatzen dituzte.
- Genero arloko bereizkeriek balore eta jarrera sexistei eusten diete.
- Jokoetako arau zurrunez eta hierarkiek meneko jarrerak eta jarrera uniformitzaileak bultzatzen dituzte.
- Eredu manikeoek (ona/txarra) intolerantzia eta arrazismoa dakarte.

Hortaz, jokoak behar bezala erabili behar ditugu, jakina ezbertizkeria ez sustatzeko eran. Joko mota baloratu ez ezik, jokoaren egitura, edukia eta horien hartzaileak aztertu behar ditugu.

Joko ludikoaren alde egin nahi dugu, hots, poztasuna eta jai giroa adierazteko bidea sustatu nahi dugu. Guztiek parte hartu beharko lukete jokoan, inor kanpoan geratu barik. Horizontala izango litzateke, hierarkiarik gabekoa eta

denon artean eginikoa, baita kreatiboa ere, fantasia eta irudimena lantzeko aukera ematen duena alegia. Talde garapeneraren baitako eta unean uneko beharrianak betetzeko joko estiloari ekin behar diogu.

Taldearen prozesua globalki baloratzeak bost urratsak betetzeko aukera ematen digu eta, era berean, ahalbidea ematen du lankidetzan oinarrituriko joko eta jarduerak bereizkeriarik gabe eta behar bezala erabiltzeko. Halaber, jokook hezkuntza lanean txertatuz gero, aipatu ere du "light" hori gaitutuko genuke. Horretara, gatazkak nola konpondu eta bakerako hezkuntza ezbertitza ikasteaz gain, taldearen eboluzioari begira aztertuko genuke jokoak.

Jokoaren hezkuntza balioa da bost urrats horien garapeneraren elementu nagusia. Erabili ohi ditugun jokoak jadanik ezagutzen ditugunak, eskuar ditugunak edo bibliografia anitzean aurki ditzakegunak dira. Hori bai, fantasia eta kreatibitatea ere sar daitezke jokoetan: beste joko eta jarduera batzuk asma ditzakezue. Jokoak asmatzea ariketa ona da oso, eta lagungarri da taldearen finkatzean eta aurrerabidean. Ildo bertsutik, eta dogmatismoan erori gabe, taldeko joko eta kirol lehiatsuek lankidetzan eta bertizkeria-ezean oinarrituriko joko eta kirol bihurtu beharko genituzke, eta horren korapilotsua ez dela konturatzeko ginateke. Taldeko giroa erabat hobetuko litzateke eta bazterte, bereizkeria eta zapalketa arazoak ezabatuko lirateke.

Taldearen eboluzio maila kontuan izanik, taldearen garapena ahalbidetzen duen joko mota jakin bat erabiliko da. Etapa bakoitzerako joko mota bat erabiliko dugu; esaterako, taldekideek elkar ezagutzeko, ezagutza jokoak erabil ditzakegu, eta taldekideak lasai eta pozik egotea nahi izanez gero, lasaitze jokoak aukera ditzakegu.

Arazo handiak izan ohi ditugu geure buruz edo beste batzuek modu baikorrean hitz egiteko edo gainontzekoen aurrean amultsuki agertzeko. Arazo horiei aurre egin nahian, estimu jokoetara jo dezakegu, zeinak erraz erabil baitaitezke, beste batzuen eta norberaren lausenguak zeinen atseginak diren erakusteko.

Komunikazio jokoek benetako komunikazio bidean barrena garamatzate. Gatazkak konpontzeko jokoak, aldiz, bakerako heziketa ezbertitzaren gailurra dira.

Lasai, pozik, autoestimaren jabe eta komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko gai diren taldekideekin emaitza onak lortzen baditugu ere, gatazkak konpontzeko aukerak baino ez ditugu aztertuko. Bide zabala da eta "errealitatearen jokoan" ageri zaizkigun arazoak are latzagoak dira. Garrantzitsua da jokoak pertsonen gizarte bizitzarako ikasgaitzat jotzea. Bizitza "jokoa" da eta horrexetatik beragatik jokatzeko dugu, bestela hezkuntza antzua baino ez genuke izango.

5.2 Beste teknika batzuk

Ez ditugu aztertu nahi hezkuntzan erabil daitezkeen baliabide guztiak. Bakerako hezkuntza liluragarri honetan, bereziki interesgarriak izan daitezkeenak baino ez ditugu aipatu nahi.

Besteak beste, honakoak aipa ditzakegu:

- Gorputz-adierazpenerako teknikak, dantza, musika, erritmoa, erlaxazio eta espresio psikomotriza.
- Ikusentzunezko baliabideak: filmeak, bideoak, irratsaioak, diapositibak, argazkiak,...
- Simulazio eta rol dinamikak
- Dramatizazioa eta antzerkia, oro har.
- Eztabaidak, mahainguruak, jardunaldiak eta abar.
- Pertsonen, erakundeen eta egitate historikoen buruzko ikerketak.
- Publizitatearen eta hedabideen analisia.
- Gaiari buruzko literatura aztertzea, hau da, testuen iruzkina.

6. Baliabide eta materialen gida

Ezbortizkeriari buruzko oinarritzko gida

AGUILERA, B. Y OTROS. Educar para la paz una propuesta posible. Arg. CYAN 1990.

ALONSO-FERNANDEZ, FRANCISCO. Raíces psicológicas de la violencia. Santa María Fundazioa. Madril. 1984.

BASTIDA, A. Desaprender la guerra. Una visión crítica de la educación para la paz. ICARIA. Bartzelona, 1994.

CENTRO DE INVESTIGACIONES PARA LA PAZ. Papeles para la paz y anuarios. Alcalá kalea 117, 6º esuina. 28009 Madril.

CORRAL PRIETO, L. La no violencia. Historia y perspectivas cristianas. CCS. Madril 1993.

CUADERNOS M.J. DE PASTORAL JUVENIL. La paz, un valor siempre actual. CCS. Madril 1988.

ETXEBARRIA, X. Pensar la violencia para hacer paz. Adarra. Bilbo, 1987.

FERNANDEZ, A. Educando para la paz: nuevas propuestas. EIRENE. Granadako Unibertsitatea. 1994.

FROMM, ERICH. Anatomía de la destructividad humana. Siglo XXI. Madril 1982.

FROMM, ERICH. Psicoanálisis de la sociedad contemporánea. Fondo de Cultura Económica. Mexiko 1956.



GANDHI, MAHATMA. Mis experiencias con la verdad. Autobiografía. Arg. EYRAS. Madril 1981.

GALTUNG, J. Sobre la paz. Arg. Fontamara, 1985.

GENOVES, SANTIAGO. El hombre entre la guerra y la paz. Labor. Bartzelona 1.968.

GOMEZ PALACIOS, J.J. Educar para la Paz. CCS. Madril. 1991.

HICKS, D. Educación para la paz. Arg. Morata. 1993.

LABORIT, HENRI. La paloma asesinada, LAIA Argitaletxea, Bartzelona 1.986.

LORENZ, KONRAD. El comportamiento animal y humano. Plaza y Janes. Bartzelona 1972.

LUTHER KING, MARTIN. El clarín de la conciencia. Arg. AYMA. 1969.


MEVES, CHRISTA y ILLIES, JOACHIM. La agresividad necesaria. Sal Terrae. Santander 1979.

MONTAGU, ASHLEY. La naturaleza de la agresividad humana. Alianza argitaletxea. Madril 1.985.

MORRIS, DESMOND. Comportamiento Intimo. Plaza y Janes. Bartzelona. 1972.

MÜLLER, Jean Marie. El significado de la noviolencia, 1982. Oveja Negra, 61.034 Madril.

MÜLLER, Jean Marie. Estrategia de la acción no violenta. Hogar del libro, Bartzelona. 1980.



OINEZ. Educar para la noviolencia. EDEJ Argitaletxea.

STORR, ANTHONY. La agresividad humana. Alianza Argitaletxea. Madril. 1991.

VAILLANT, F. La noviolencia en el evangelio. Arg. Sal Terrae. Kantabria. 1993.

Bake heziketari buruzko bibliografia oinarritzkoa

CEAC. Cómo resolver conflictos en clase. Bartzelona 1989.

Bakerako Hezkuntzari buruzko gaiak dituztenak ondokoak dira:

107 (1983-XI), 112 (1984-IV), 125 (1985-V), 132 (1985-XII), 140 (1986-IX), 155 (1988-I), 163 (1988-X), 164 (1988-XI), 170 (1989-V), 174 (1989-X) eta 150 zenbakidun monografikoa (1987-VIII).

JARES, X. R. Educación para la paz, su teoría y su práctica. Arg. Popular. Madril. 1991.

JUDSON, Stephanie. Aprendiendo a resolver los conflictos: manual de educación para la paz y la noviolencia. Arg. Lerna, 1986.

LEDERACH, Jean Paul. Educar para la paz. Arg. Fontamara, 1984.


MARTINEZ SANTAMARIA DE UNZA, Isabel. Lectura y educación para la paz. Un proyecto interdisciplinar para secundaria. Narcea Arg. Madril 1993.

RAYO, TUVILLA. La escuela: instrumento de paz y solidaridad. M.C.E.P. 1994.

RODRIGUEZ ROJO, M. La educación para la paz y el interculturalismo como tema transversal. Oikos-Tau.

BATZUK. Chicos y educadores constructores de la paz. Popular Arg. 1987.

BATZUK. Semillas de paz: contribución de la educación preescolar a la comprensión internacional y la educación para la paz. UNESCO Arg.



SEMINARIO DE APDH: Educar para la Paz: una propuesta posible. Madril, Los libros de la catarata argitaletxea, 1994.

Ikasgelan erabiltzeko

Ikertzeko

BROWN, Lester R. y Otros. La situación en el mundo 1.993. CIP/ Apóstrofe argitaletxea, Madril, 1993.

CHALLAND, Jean Pierre y RAGEAU, J. Atlas geoestratégico, Alianza, 1987.

LEGER SIVARD, Ruth. El Planeta en la encrucijada. Gastos militares, sociales y crisis ecológica. CIP/Icaria, 1992.

PETERS, A. Atlas del mundo. Vicens Vives, 1991.

VV. AA. El estado del mundo 1993. Akal, 1993.

Irakurtzeko

COLECTIVO PARA UNA ALTERNATIVA NOVIOLENTA. Literatura infantil y juvenil por la paz, Oveja Negra, Postakutxatila 61.034, 28080 Madril.

INNOCENTTI, Roberto. Rosa Blanca. Lóguez argitaletxea, Salamanca, 1987.

MCKEE, David. Los dos monstruos. Espasa Calpe, Austral Infantil, Madril, 1987.

PAUSEWANG, Gudrun. La nube, Lóguez argitaletxea.

TURIN, Adela y BOSNIA, Nella. Rosa Caramelo. Lumen argitaletxea, Bartzelona, 1976.

Erabiltzeko; dinamika eta ekintzak.

ARRANZ, EMILIO. El juego escolar. Escuela española arg. Madril. 1988.

BERISTAIN, Carlos y CASCON, Paco. La alternativa del juego. Los libros de la catarata. Madril 1986.

DELGADO, F. El juego consciente. Integral. Bartzelona 1986.

IDEM. Aprende a jugar, aprende a vivir. Idem, 1990.

IDEM. Armemos la paz. Idem.1990.

IDEM. Unidad didáctica de Derechos Humanos. Idem, 1989.

IDEM. Unidad didáctica de gastos militares y necesidades sociales. Idem, 1990.

JARES, X. R. El placer de jugar juntos. CCS, 1992.

Seminario de Educación para la Paz de la APDH. La alternativa del juego II. Idem, 1990.

Seminario de Educación para la Paz de la Asociación Pro-Derechos Humanos. Unidad didáctica de sexo-género. José Ortega y Gasset, 77. Madril 1988.

ORLICK, Terry. juegos y deportes cooperativos. Popular argitaletxea, 1987.

ORLICK, Terry. Libres para cooperar, libres para crear. Paidotribo argitaletxea, Barcelona, 1991.

VARIOS. Ideas en paz. EIRENE.

VARIOS. Juguemos todos. Acción noviolenta de Málaga.

Beste gai batzuk: emakumea, arrazakeria...

ADARRA, Kolektiboa. Claves para adecuar la escuela a la realidad de niños y niñas gitanas. Adarraren koadernoak, 30 eta 31.

BATZUK. L'interculturalisme en el currículum: el racisme. Dossiers Rosa Sensat, Bartzelona, 1991.

BELLOTI, Elena Giani. A favor de las niñas. Monte Avila argitaletxea.

HARIMAGUADA, Kolektiboa. Educación sexual.

IZQUIERDO, M^a J. El sistema de género y la mujer como sujeto de transformación social. La Sal argitaletxea. Bartzelona.

MICHEL, A. Fuera moldes. Hacia una superación del sexismo en los libros infantiles y escolares. La Sal argitaletxea.

MORENO, M. Cómo se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela. Icaria argitaletxea, Bartzelona.

SUBIRATS, M. Niños y niñas en la escuela: una exploración de los códigos de género actuales. Educación y sociedad, 44. alea.

WIEVIORKA, M. El espacio del racismo. Paidós, Bartzelona, 1992.



Komikiak

BATZUK. La carrera de armamentos. Intermon (12 urtekoak baino nagusiagoak direnzentzako)

BATZUK. Norte y sur. Ikusager (Gasteizko Udala) (12 urtekoak baino nagusiagoak direnzentzako)

BATZUK. Paz y desarme. Intermon. (12 urtekoak baino nagusiagoak direnzentzako)

Ikusentzutezko materiala

Ikusentzutezkoak

- *Así acaba la vida*, Claret.
- *Así no juego*, Claret.
- *Bonifacio el campesino*, E.CO.E.
- *Caminando*, REDPAZ.
- *El bolígrafo pistola*, Don Bosco.
- *El general jardinero*, EDEBE.
- *La flor y la metralla*, Diapositivas Don Bosco (1978).
- *La guerra*, Diagrup, 9, EDEBE.
- *La Isla*, E.CO.E.
- *La paz*, Diagrup 10, EDEBE.
- *La paz*, filigrana difícil, Paulinas.
- *Memorias de un coronel*, Claret.
- *Paz ¿qué paz?*, E.CO.E.
- *Proceso a los fuertes*, Equipo de Comunicación Educativa (E.CO.E), Muñoz Díaz kalea, 1-3, 28018 Madril.
- *Sacadme de aquí* de Luis Pérez.
- *Sálvese quien pueda*, Claret.
- *Un día antes*, Claret.

Bideoak

- *Boom*, kolorez, 10', marrazki bizidunak. Nazio Batuen Erakundea.
 - *Y si no...*, kolorez, 10', marrazki bizidunak. Nazio Batuen Erakundea.
- Unescoko lagunak / Club de Amigos de la Unesco* erakundearen bidetik lor daitezke.
- *E*, 7', marrazki bizidunak. Office National Film, Kanada.
 - *Historia de perlas*, 5', marrazki bizidunak. Office National Film, Kanada.

- *Juguetes*, 7'. Office National Film, Kanada.
 - *Vecinos*, 7', Norman Mc Laren. Office National Film, Kanada.
- Fundació per la Pau-ren bidetik lor daitezke.*

- *Commonsense actions* 1982 40'. CANC banatzailea.
- *El juego de la guerra*, 40'. Peter Watkins
- *Generales por la paz*. Giza Eskubideen aldeko Elkartearen bidez.
- *La generación perdida*, kolorez. Nazio Batuen Erakundea. Nazio Batuen Erakundeko Lagunen Elkartearen bitartez lor daitezke
- *Los mercaderes de la muerte*, 28'. Bakerako Ikerkuntza Zentroa.
- *Todos nacemos en una trinchera*. VHS bideoa .
- *Oyambre*, 50', kolorez. Kantabriako Asamblea de Acción Noviolentak banaturik.
- *La profecía*, 50', kolorez. Nazio Batuen Erakundea. Nazio Batuen Erakundeko Lagunen Elkartearen bitartez lor daitezke

Garapen eta internazionalismo, giza eskubideetarako beziketa, ingurugiroaren gaineko beziketa eta abarrei buruzko bideo interesgarriak dituzten erakundeak honakoak dira: Giza Eskubideen aldeko Elkartea, Hegoa, Euskal Fondoa, Erreka, Greenpeace, Komite Internazionalistak, Askapena, Amnesty International ...

Filmak (16 eta 35 mm.)

- *Balablock*, marrazki bizidunak.

Office National Film, Kanada
 • *Hambre*, marrazki bizidunak.
 Office National Film, Kanada
Kanadako Enbaxadaren bidez lor daitezke.

Gerrazaletasunaren kontrako filmeak BATAILA FRONTEETAKO BIZITZA ETA GERRA

- *Todo un día para morir*. P. Collinson.
- *Los gritos del silencio*. Roland Joffe.
- *Chaqueta metálica*. Stanley Kubrick.
- *Sin novedad en el frente*. Lewis Milestone.
- *Cuatro de infantería*. G. W. Pabst.
- *La Cruz de hierro*. Sam Peckinpach.
- *Platoon*. Oliver Stone.
- *El gran desfile*. King Vidor.
- *El precio de la gloria*. R. Walsh.

PARANOLA MILITARISTA ETA ITSU-ITSUAN OBEDITZEA

- *Apocalipsis Now*. F. Ford Coppola.
- *Senderos de Gloria*. Stanley Kubrick.
- *Pequeño gran hombre*. Arthur Penn.
- *La última carga*. Tony Richardson.
- *Gallipoli*. Peter Weir.

GERRARI BURUZKO GOGOETA

- *Yo acuso*. Abel Gance.
- *Intolerancia*. David W. Griffith.
- *Paseo por el amor y la muerte*. John Huston.
- *La gran ilusión*. Jean Renoir.
- *Stalingrado*. Joseph Vilsmaier.

GERRAREN ONDORIOAK

- *El regreso*. Hal Asbhy.
- *Juegos prohibidos*. René Clément.



- *Todos a casa*. Luigi Commencini.
- *El cazador*. Michel Cimino.
- *El filo de la navaja*. Edmund Goulding.
- *Remordimiento*. Ernst Lubistch.
- *Taxi driver*. Martin Scorsese.
- *Dos mujeres*. Vittorio de Sica.
- *Hiroshima mon amour*. Alain Resnais.
- *Johnny cogió su fusil*. Dalton Trumbo.
- *Paisaje después de la batalla*. A. Wajda.
- *Los mejores años de nuestra vida*. William Wyler.
- *Hombres*. Fred Zinnemann.

GERRAZALETASUNAREN KONTRAKO PARODIAK

- *Mash*. Robert Altman.
- *Armas al hombro*. Charles Chaplin.
- *El gran dictador*. Charles Chaplin.
- *La calle de la Paz*. Charles Chaplin.
- *Jo... que guerra tan divertida*.

- *Cómo gane la guerra*. R. Lester.
- *¿Dónde está el frente?*. Lewis.
- *La Gran Guerra*. Mario Monicelli.
- *Trampa 22*. Mike Nichols.

GERRA NUKLEARRA

- *Alerta misiles*. Robert Aldrich.
- *Juegos de guerra*. John Badham.
- *Cuando el viento sopla*. R. Briggs.
- *¿Teléfono Rojo?, volamos hacia Moscú*. Stanley Kubrick.
- *Testamento final*. Lynne Litman.
- *Punto límite*. Sidney Lumet.
- *El día después*. Nicholas Meyer.

IHESTEA

- *Los vencedores*. Carl Foreman.
- *Hombres contra la guerra*. Francesco Rosi.
- *Rey y Patria*. Joseph Losey.
- *La ejecución del soldado*. Slovic de Lamont Johnson.

BAKEZALETASUNA ETA KONTZIENTZI ERAGOZPENA

- *Soldadito español*. Antonio Giménez-Rico.
- *El restaurante de Alicia*. Arthur Penn.
- *Z*. Costa-Gavras.
- *Mediterráneo*. Gabriele Salvatore.
- *Sargento York*. Howard Hawks.
- *La gran prueba*. William Wyler.
- *Marcha triunfal*. Marco Bellocchio.
- *Ghandi*. Richard Attenborough.
- *Hair*. Milos Forman.
- *La voz del silencio*.
- *Un hogar llamado Milagro*. R. Redford.
- *Actas de Marusia*. Miguel Littin.
- *Nacido el 4 de julio*. Oliver Stone.

BORTIZKERIAREN INGURUAN

- *La naranja mecánica*. Stanley Kubrick.
- *La historia oficial*. Luis Puenzo.
- *Missing*. Costa-Gavras.
- *Estado de sitio*. Costa-Gavras.
- *El Salvador*. Oliver Stone.
- *La batalla de Argel*. Gillo Pontecorvo.
- *Roma ciudad abierta*. Roberto Rossellini.
- *El señor de las moscas*. Harry Hook.
- *Historias del Kronen*. Montxo Armendariz.

EMAKUMEA

- *¿Qué he hecho yo para merecer esto?* Pedro Almodóvar.
- *Hombres, hombres*. Doris Dorne.
- *Tres solteros y un biberón*. C. Serreau.
- *La sal de la tierra*. John Biberman.
- *Norma Rae*. Martin Rit.
- *Baby, tú vales mucho*. C. Shyer.
- *Thelma y Louise*. Ridley Scott.
- *La Puta del Rey*. Axel Corti.
- *Tomates verdes fritos*. John Avnet.
- *Durmiendo con su enemigo*. J. Ruben.
- *Un asunto de mujeres*. C. Chabrol.
- *El cuento de la doncella*.

BALORE EKOLOGISTAK

- *El síndrome de China*. James Bridges.
- *Silkwood*. Mike Nichols.
- *Derzu Uzala*. Akira Kurosawa.
- *Greystoke*. Hugh Hudson.
- *La selva esmeralda*. John Boorman.
- *Donde sueñan las verdes hormigas*. Werner Herzog.


- *Soylent Green Cuando el destino nos alcance.* Richard Fleischer.
- *Gorilas en la niebla.* Michael Apted.
- *Los últimos días del Edén.* John McTiernan.
- *Las aventuras de Jeremiah Johnson.*

BAZTERKERIA ETA KULTURARTEKOTASUNA

- *Grita libertad.* Richard Attenborough.
- *Un mundo aparte.* Chris Menges.
- *El color púrpura.* Steven Spielberg.
- *Arde Mississippi.* Alan Parker.
- *Las cartas de Alou.* Montxo Armendáriz.
- *Bwana.* Imanol Uribe.
- *Mandela.* Richard Attenborough.
- *El tiempo de los gitanos.* Emir Kusturica.
- *Malcom X.* Spike Lee.
- *Bailando con lobos.* Kevin Costner.
- *Pequeño gran hombre.* Arthur Penn.
- *Un hombre llamado caballo.* Elliot Silverstein.
- *La misión.* Roland Joffe.
- *Jugando en los campos del señor.* Héctor Babenco.
- *Los chicos del barrio.* John Singleton.
- *Semillas de rencor.* John Singleton.
- *El sendero de la traición.* Costa Gavras.
- *Grand Canyon.* Lawrence Kasdan.
- *Mississippi Masala.* Miran Nair.
- *Jóvenes guerreros.* Michael Apted.
- *Los últimos guerreros.* Michael Apted.
- *La caja de música.* Costa Gavras.

HOMOSEXUALITATEA

- *Maurice*
- *Abrete de orejas.* Stephen Frears
- ...



Bakerako Heziketan lanean dabiltzan taldeen helbideak

- GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA,
Rekalde zumarkalea, 6 1º esk.,
48009 Bilbo. Tel: 4235848.
- BAKEAZ. BAKERAKO DOKUMENTAZIO ETA IKERKETARAKO ZENTROA.
Zuberoa 43 Behea-48012 Bilbo (Bizkaia) Tel: 4213719
- BIAIX (Centre de recursos).
345 Postakutxatila, 43200 REUS (Tarragona). Tel: 34 14 73.
- CIP, BAKERAKO IKERKUNTZA ZENTROA,
Alcalá 117, 6º esk., 28012 MADRIL. Tel: 275 19 75

- COLECTIVO PARA UNA ALTERNATIVA NOVIOLENTA (Oveja Negra) 61034 postakutxatila, 28080 MADRIL
- COLECTIVO NO VIOLENCIA Y EDUCACION
Padre Piquer, 54-2º D, 28024 MADRIL
- EDUCADORES POR LA PAZ
Villanueva, 55, GUIA DE ISORA (Tenerife)
- EIRENE-CULTURA PARA LA PAZ
Ateneo Popular Los Otros, San Bruno plaza, z/g, 09007 BURGOS
- EN PIE DE PAZ
Gran de Gracia 126-130, 08012 Bartzelona. Tel: 217 95 27.
- FUNDACIÓ PER LA PAU
Pau Claris, 72, 3-2 B. 08010 Bartzelona Tf: 302 51 29
- GRUP D'EDUCACIÓ PER A LA PAU, C.P.
Festa d'Elx, P de Ronda, z/g, ELCHE (Alacant)
- GRUPO DE EDUCAR PARA LA PAZ
Padre Lobera, 14, 3. 24007-LEON
- GRUPO DE EDUCAR PARA LA PAZ/EVA
Conde de Aranda 106-8, 3. ezk, 50003 ZARAGOZA
- NOVIOLENCIA Y EDUCACIÓN

Casarabonela 24, 4. F,
29006 MALAGA

- PERIFERIA (Centre de recursos i assistència primària per la pau).
Mare de Déu de Montserrat, 136, 08026 BARTZELONA. Tf: 236 31 65
 - REDPAZ-SEMINARIO PERMANENTE DE EDUCACIÓN PARA LA PAZ.
Constitución plaza, 6, 2., 41004 SEVILLA. Tf: 437 66 13
 - SEMINARI PERMANENT D'EDUCACIÓ PER LA PAU DE BADALONA.
Avda. Congrés Eucarístic 16-20, 08012 BADALONA (Bartzelona). Tel: 388 87 82
 - SEMINARIO GALLEGO DE EDUCACION PARA A PAZ
Rúa dos Basquiños, 33 1º B. 15703 Santiago. Tel: 561956 Fax: 561956
 - SEMINARIO PERMANENTE DE EDUCACIÓN PARA LA PAZ/CEP
Bécquer plaza, 1, 2. esk. 10. D, CADIZ
- Interesgarriak izan daitezken beste helbide batzuk
- AMNISTY INTERNATIONAL
Ibáñez de Bilbao, 2 2., 48080 Bilbo (Bizkaia) Tel: 4233577
Postakutxatila 3345

01080 Gasteiz (Araba)
Jose M^a Salaberri, 39- Behea.
Donostia (Gipuzkoa)

- EKEA/AOC
Prim, 27 3^o 48006 Bilbo (Bizkaia)
Tel: 4154904
Canciller Ayala, 11 1.
01004 Gasteiz (Araba)

- ARABIA ELKARTE
SOZIOKULTURALA
Pintoreria, 33-Behea.
01001 Gasteiz (Araba)

- CENTRO DE INFORMACION
Y DOCUMENTACION
AFRICANAS (CIDAF)
Gaztambide, 31. 28015 Madril.
Tel: (91) 5441818

- ADARRA KOLEKTIBO
PEDAGOGIKOA
Licenciado Poza, 31. 48011 Bilbo
(Bizkaia) Tel: 4423250

- GOBERNUKO KANPOKO
ERAKUNDEEN EUSKADIKO
KOORDINAKUNDEA
Madariaga etorbidea, 49-Behea.
48014 Bilbo (Bizkaia) Tel: 4762331

- FUNDACIÓ PER LA PAU
Pau Claris, 72, 3-2 B, 08010
BARTZELONA. Tel: 302 51 29

- GREENPEACE
Rodríguez San Pedro, 58, 28015
MADRIL. Tel: 419 5254

- HEGOA
Ekonomia eta empresa zientzien
fakultatea. EHU/UPV.
Lehendakari Aguirre kalea, 83.
48015 Bilbo (Bizkaia) Tel: 4473512
Manuel Iradier, 6 Behea.
01006 Gasteiz (Araba)

- HIRUGARREN MUNDUA
ETA BAKEA
Zumarraga, 5-Behea. 48006 Bilbo
(Bizkaia) Tel: 4154307



- INTERMON
Florida, 56- 1. B. 01005 Gasteiz
(Araba) Tel: 278726

- IPES
Ronda, 25 2. 48005 Bilbo
(Bizkaia). Tel: 479 04 30
San Miguel, 8 3. 31001 Iruñea
(Nafarroa) Tel: 22 59 91

- JOXEMI ZUMALABE
FUNDAZIOA
Zabalbide, 26 Behea. 48006 Bilbo
(Bizkaia) Tel: 433.59.05
Ametsagaina Ibilbidea, 19 behea.
22012 Donostia (Gipuzkoa)
Tel: 27 55 61

- JUSTICIA ETA BAKEA.
HIRUGARREN MUNDUA
Principe de Viana, 1 Lonja. Bilbo
(Bizkaia)

- KAKITZAT
Barrenkalea, 40 1 - 48005 Bilbo
(Bizkaia) Tel. 4153151
Fray Zacarias z/g (Gasteizko
Gaztetxea) Gasteiz (Araba)
Peña eta Goñi, 13 1. -
20002 Donostia (Gipuzkoa)
Tel: 292348
Navarrería, 15 Behea 31001 Iruñea
(Nafarroa) Tel: 212615

- KEM/ MOC
Iturribide, 12 1. esk. 48006 Bilbo
(Bizkaia) Tel: 4153772
Florida, 37 2. A 01005 Gasteiz
(Araba) Tel: 272808

Duque de Mandas, 40. 20120
Atotxa-Donostia Tel: 320292
La Merced, 18 31001 Iruñea
(Nafarroa) Tfno: 210530

- MUGARIK GABE
Zumarraga, 5 Behea. 48006-Bilbo
(Bizkaia) Tel: 4154307

- SOLIDARIDAD PARA EL
DESARROLLO Y LA PAZ
(SODEPAZ)
Pizarro kalea 5. 28004- Madril.
Tel: 5228091

- SOS ARRAZAKERIA
Zumarraga, 3 behea. 48006 Bilbo
(Bizkaia) Tel: 4790310
Santa Catalina, 3 Behea.
20004-Donostia (Gipuzkoa)
Behea: 423138
Francia, 11- 2^o Esk. 01004-
Gasteiz (Araba) Tel.: 265909

Lan Honetan parte hartu dugunok:

Ricardo Calle Fano (Ahimsa Lan Taldea)

Jon Iñaki Carnicero Urrea (Ahimsa Lan Taldea)

Susana Fernández Fernández (Urtxintxa Eskola)

Javier Fuertes (Urtxintxa Eskola)

Agurtzane Lejarza Arza (Urtxintxa Eskola)

Itziar Irazabal Aguirre (Ahimsa Lan Taldea)

Beatriz Rodríguez De Prado (Ahimsa Lan Taldea)

Serafín Ruano Pin (Ahimsa Lan Taldea)

Fermín Sánchez López (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua)

Oharrak